

SORGIN EHIZAREN HASTAPENA

Bideoaren entzumena

Entzun eta ikusi bideoa bi aldiz eta erantzun galderei erantzun zuzenak inguratuz edo esaldi osoak eginez.

1. Zugarramurdiko prozesua da Euskal Herriko sorgin ehizaren adibide bakarra?

- a) Bai, Euskal Herrian bakarrik Zugarramurdin ehizatu zituzten sorginak.
- b) Ez, ez zen Euskal Herriko sorgin ehiza bakarra izan baina bai deigarriena.
- c) Ez, ez zen Euskal Herriko sorgin ehiza bakarra izan, ez eta deigarriena ere.

2. Zonbat pertsona atxilotu zituzten Zugarramurdin? Eta nor ziren gehienak?

HIZTEGIA:

Ehiza: *chasse*

Bakar: *seul*

Deigarri: *frappant*

Atxilotu: *arrêter*

Irudikatu: *imaginer*

Urkatu: *pendre*

Gurtu: *vénérer*

Erakunde: *institution*

3. Ikasleek nola irudikatzen dituzte sorginak? Aipatu ikasleen hiru hitz edo ideia.

4 . Sorgin ehizaren prozesua nongoa izan zen?

- a) Sorgin ehiza ez zen bakarrik Zugarramurdikoa izan; Euskal Herriko prozesu bat izan zen.
- b) Sorgin ehiza bakarrik Zugarramurdi eta ondoko herrietako prozesu bat izan zen.
- c) Sorgin ehiza ez zen bakarrik Zugarramurdikoa izan; ezta Euskal Herrikoa bakarrik ere. Sorgin ehiza Europako prozesu bat izan zen.

5. Zonbat lagun hil zituzten erreta edo urkatuta Europan?

6 . Dena liburu batekin hasi zen. Zer aipatzen da liburuan?

- a) Liburuak aipatzen du nola sorginek deabrua gurtzen zuten eta nola identifikatu sorgin bat.
- b) Liburuak aipatzen du nola sorginek jainkoa gurtzen zuten eta nola identifikatu sorgin bat.
- c) Liburuak aipatzen zuen Europako zoin herritan sorginak baziren eta nola identifikatu sorgin bat.

7 . Zer da Inkisizioa?

- a) Eliza Katolikoak bere bidetik joaten ziren pertsonak zigortzeko erakundea.
- b) Eliza Protestanteak pertsona gaiztoak zigortzeko erakundea.
- c) Eliza Protestanteak bere bidetik joaten ziren pertsonak zigortzeko erakundea.



8. Nork agindu zituen Ipar Euskal Herriko (Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xiberoako) sorgin ehizak? Zoin pertsona izan zen ordezkari nagusiena?

.....

.....

9. Lapurdin izan ziren sorgin ehizen erdigunea non izan zen?

- a) Saran b) Zugarramurdin c) Donibane-Lohitzune eta Ziburun

10. De Lancre Bordeleko jujeak noiz akusatu zituen 3000 lagun eta 80 kondenatu?

- a) Arrantzaleak Ternuatik etortzen zirelarik akusatu zituen, herrian jende gehiago bazelarik.
b) Arrantzaleak Ternuarat joaten zirelarik akusatu zituen, herrian gizon gutxiago bazelarik.
c) Zugarramurdiko sorgin ehiza eta gero.

11. De Lancrek 80 pertsona kondenatu zituelarik jendea norat joan zen?

.....

HIZTEGIA:

Agindu: *commander*

Nagusi: *principal*

Ordezkari: *représentant*

Erdigune: *centre*



**Sasi guzien gainetik,
laino guzien azpitik.**

